



Bandoa ATAUN

ETXARRI-ARANATZ ETA LAZKAOKO IGERILEKUAK ERABILTZEKO DIRULAGUNTZAK

Ataungo Udalak erabaki du Ataunen erroldatuta dauden herritarrei dirulaguntza ematea mugakideak ditugun Lazkaoko eta Etxarri-Aranazko kanpoko igerilekuak erabiltzeko.

Udako denboraldiari dagozkion sarrerak eta bonuak soilik hartuko dira kontuan, eta % 20ko laguntza izango dute.

Lazkaon urte osoko bonua duten herritarrei udako denboraldiko proportzioa ordainduko zaie.

Laguntza horiek jasotzeko, sarreraren agiriak aurkeztu beharko dira Udal bulegoan, irailaren 23tik irailaren 28ra, ordutegi honetan: 09:00etatik 14:00etara.

EZ DIRA ORDAINDUKO epe horretatik kanpo aurkezten diren sarrerak.

Dirulaguntza eskatzen dutenek egiaztatu egin beharko dute, eskaera egin aurretik, Ataunen bizi direla eta gutxienez urtebete daramatela erroldatuta.

Ataungo Udalarekin zorrak dituzten eskatzaileek ezingo dute dirulaguntzarik jaso.

UDALETXEKO ETA LIBURUTEGIKO UDAKO ORDUTEGIA

Udal bulegoak ohiko ordutegia izango du udan ere, baina astearte arratsaldeetan ez du zerbitzurik emango irailera arte. Liburutegia goizez irekiko da, 10:00etatik 12:00etara, ekainaren 24tik uztailaren 31ra. Abuztuan itxita egongo da.

*Ataunen, 2019ko ekainaren 24an
ALKATEA,*

